



ZUZENBIDEAN ARITZEKO (IV) ZUZENBIDE APLIKATZEN ETA ADIERAZTEN

Mikel Mari KARRERA EGIALDE

AURKIBIDEA: I. Zuzenbidea aplikatzen.-1. Azterketa juridikoa egiten.-2. Argudiatzen.-II. Zuzenbidea adierazten.-1. Idazten.-2. Hitz egiten.

I. Zuzenbidea aplikatzen

El estudiante de Derecho se ve asaltado a veces por la idea de que no se está ocupando de cosas sino de palabras, que se ocupa de la forma y el tamaño de las fichas de un juego de logomaquia. Peor cuando se da plena cuenta de cómo estas palabras han pasado y pasan por dinero, no solo por tontos y para tontos, sino por y para los espíritus más agudos, el estudiante de Derecho recibe la impresión de que hay allí una tarea que merece ser hecha, siempre que se la haga con mérito GRAY, John Chipman (1909): *The nature and sources of the law*, The Columbia university press, New York, 7. Or.

1. Azterketa juridikoa egiten

Ideiak **egituratu** ostean, **ordenamendu juridikoaren iragazkitik pasa** behar dira banan-banan.

Gatazkak Kasua **konplexua** denean, alegia, pertsona eta erlazio juridiko anitz badaude, orduan **binakako gatazkak** bereizi.

NORK-NORI-ZER eskema Beti, norbaitek beste norbaiti zerbait eskatzen dio. Azken batean, auzi judizialean, demandatzailea(k) eta demandatua(k) daude.


Arau juridikoak bilatu Gogoratu zuzenbide zibileko iturriak (legea, ohitura, zuzenbideko printzipio orokorrak): araudia emana zaigu, ez dago sortu beharrik (epaileak ere ez). Normala da aplikatu beharreko araua zein den ez jakitea, ordenamenduaren egituran kokatu beharra izatea, edukia aztertu behar izatea, interpretazio arazoak topatzea. Intuizioak eta esperientziak asko laguntzen dute, baina horiek eskarmentuz (azterketa juridikoak behin eta berriz burutuz) eskuratzen dira.

Betekizunak Arauak eskatzen dituen betekizunak edo ukanbeharrak alderatu eta egiaztatu. Betetzen al dira kasuari aplikatzeko?


Ondorio juridikoak azaldu Ondorio juridikorik baduten arazoak eta galderak bakarrik izango dute erantzun juridikoa. Kontuan izan, beraz, galdera orok baduela esanahi juridikoa (erantzun behar dena) eta esanahi praktikoa (interes eta ondorio ekonomiko-sozial-familiarrak).



Arauen eremuen diagrama



Ondorio juridikoen diagrama (prozesua)



2. Argudiatzen

Idea nagusia Babesten den interesaren edo jarreraren arabera, buruan izan behar da beti defendatu nahi den ideia. Horretarako, azpimarratuko dira interesekoak diren frogak, arauak, epaiak eta iritziak.

Aurkako argudioak Beti kontuan hartu behar dira aurkako argudioak, bereziki balioa kentzeko modua izanez gero, edo argudio propioen aurrean garrantzia murrizteko.

Momentua Defendatzen diren argudio nagusiak, eta baita aurkako argudioei kontra egitea, noiz azaldu oso garrantzitsua da eraginik sendoena izateko.

Bereizi Ideiak eta argudioak ondo bereizita eman: idatziz bada, lerroalde batean eta, ahoz bada, azpimarratuz aldaketak. Horrekin batera, argudio desberdinen arteko erlazioa lotura logikoarekin azaldu, koherentzia eta sistematizazioa azaleratuz.

Kontuz Aurka etorri daitezkeen egitateak edo inguruabarrak ez azaldu. Gogoratu: hitzen morroi, isiltasunaren jabe.

Bukaera Argudiorik nagusiena azkenerako utzi beti, uste osoa eta sendoa sorrarazteko.





II. Zuzenbidea adierazten

1. Idazten

Lo mejor es enemigo de lo bueno, y lo bueno enemigo de lo aceptable. Puesto a escribir, el autor ha de calibrar sus fuerzas y marcarse un nivel, objetivamente suficiente y subjetivamente proporcionado a ellas. Trato de expresarlo con números. Supongamos que la calidad máxima que puedo alcanzar en mi libro es de cien. Pues bien: si para alcanzar un índice de calidad de noventa son precisas diez horas, para lograr uno de noventa y nueve necesitaré cien, y para conseguir el de cien me harán falta mil horas. Quiero decir que se llega a un momento en el cual el incremento de la bondad del libro es lo bastante pequeño, y el incremento del dispendio de tiempo lo suficientemente grande, como para que no sea razonable proseguir. El perfectismo es tan vicioso como el “yavalismo” **LACRUZ BERDEJO (1964): Anuario Derecho Civil, 647. or.**

Helburua Komunikazioa, hau da, emaitza beste **norbaiti** azaldu behar zaio.

Kontuan izan idazkia **nori** zuzendua dagoen (eragile juridikoari, prestakuntza juridikorik baduenari, zuzenbidez ezer ez dakienari, eta abar) eta **zergatik** irakurriko duen.

Estrategia gisa hirugarren batek **epaitu** behar duela pentsatuz gero, adierazi nahi dena oso egoki azaltzera joko da.

Zer Anlisi juridikoa eman behar da.

Literaturako lan gisa ez da hartu behar, baina baliabide estilistikoak erabil daitezke komunikazio naturala, erraza eta arina lortzeko.

Itxura Idazkiak egileari buruzko irudia sorrarazten du. Horregatik zaindu behar dira modua eta edukia.

Modua Argitasunez eta **efikaziaz**

Egoki, zuzen eta argi azaldu ere, hizkuntzaren erregelak errespetatuz.

Formaren garrantzia: izenburuak, epigrafeak, letra mota eta tamaina, orriak zenbatu, eta abar.

Edukia Idazkiaren mezua

Arrazonamendua eta logika.

Argudioak eraiki: informazioa ematen da egitateak jasoz eta, arauen arabera, ondorio juridikoak gauzatuz .

Egitura Idazkiaren hedadura neurtu behar da eta egituratu (aurkibidea).

Azalpenaren helburua.

Azalpenaren ordena logikoa.

Argudioak azpimarratu.

Idea nagusiak eta ondorioak laburtu: errepikatzeak ulertzen eta gogoratzen laguntzen du, baina gehiegikerian erori gabe.



Gomendioak

Hitzak

Sinpleenak aukeratu, konplexuak baztertuz.
Nagusiak, esaldiaren hasieran jarri, osagarrik atzean utziz.

Esaldiak

Zehatzak eman, esanahi anitzekoak ez egiteko.
Luze bat baino, bi esaldi labur errazago ulertzen dira.
Boz aktikoan adierazi, boz pasiboan baino.
Baiezko moduan eman, ezezkoan baino.
Adiztuta erabili (aditz moduan egin), egitura nominalizatua baino.
Nahaspilarik ez egin.

Ideiak

Idea ulergarriak adierazi, helburua ez baita inor harritzea eta txunditzea.
Idatzitakoa berridatzi behin eta berriz, behar haina.

2. Hitz egiten

Es una de las desdichas del Derecho que las ideas se enquistan en frases y después de ello, y durante largo tiempo, dejan de originar nuevos análisis **HOLMES en la sentencia del caso *Hyde c/ United States* (1911), 225 U.S. 347, 391.**

Hitzaren indarra Hitza hartzea eta erabiltzea eguneroko jarduna da hitz egiteko gaitasuna duen pertsonarentzat. Familian edo lagun artean, eta bereziki jendaurrean ideiak ondo adierazten badakienak, besteen aurrean **abantaila** eta norberarekiko **segurtasun pertsonala** lortzen ditu.

Hitza baliatzea Ondo hitz egin eta nahi den helburua lortzeak, aurrez prestatzea eta teknikak lantzea eskatzen du. Prestakuntza orokorra da, alegia, balio du edozein ingurunean hitz egiteko (epaitegian, klasean, hitzaldian, lagunekin eta abar) eta, eguneroko bizitzan baliatzen den kasu guztietan (hitz eginez), prestakuntza egiten da.

Galderak QUINTILIANOK erretorikarako emandako **eskema** gogoan izan beti.

<i>Quis</i>	Nork	Emaillea	Nork hitz egiten du
<i>Cui</i>	Nori	Jasotzailea	Nori zuzentzen zaio
<i>Quid</i>	Zer	Gaia	Zeri buruz ari da
<i>Ubi</i>	Non	Lekua	Non esaten du
<i>Quibus Auxilis</i>	Zerekin	Tresna	Zein laguntza dauka adierazteko
<i>Cur</i>	Zergatik	Kausa	Zergatik hitz egiten du
<i>Quomodo</i>	Nola	Modua	Nola adierazten du
<i>Quando</i>	Noiz	Garaia	Noiz esaten du



Irizpideak Hitz egitea **emaitza** bat da, beraz aurretik badaude kontuan hartzeko elementuak.

Komunikazioa Pertsonak berezkoa du komunikatzea.

Trukea Gauzarik onenak eman eta jasotzen dira elkar harremanetan.

Fruitua Adierazitako guztiak sortzen du bere fruitua.

Zentzua Pertsonaren ezein jarduera bezala, ohiko zentzua baliatuko da.

Emankorra Ideiak ugariak dira eta zer esateko asko izaten da.

Muga Ezagutzen denaz mintzatu eta ezagutzen den puntu arte bakarrik.

Hizkuntza Aberatsa da, hitzak soberan daude aukeratzeko eta erabiltzeko.

Isiltasuna Hitza menperatzeko tresnarik nagusia da isiltasuna, momentu oro gestionatzeko edo kudeatzeko balio baitu.

Lasaitasuna Hitzak poliki lastanduz esan behar dira.

Apaltasuna Inor ez da inportanteagoa, ni ere ez naiz inportanteagoa.

Printzipioak Hitzaren bidezko komunikazioan parte hartzen du **buruak**, eta baita **bistak** eta **belarriak**, hizlariaren aldetik eta baita entzulearen aldetik. Faktore horiek kontuan izanda, hona hitz egiteko erregela nagusienak.

Esaten dena

- Lehenik pentsatu eta gero adierazi; alderantziz inoiz ez.
- Idea eta esaldia etenik egin gabe beti bukatu eta borobildu.
- Esaldi laburrak eraiki.

Ikusten dena

- Zuzenean begiratu entzuleari.
- Keinuei askatasuna utzi, baina hitzaren nagusitasuna jan gabe.

Entzuten dena

- Isiltasunak erabili eta neurtu.
- Abiadura egokia baliatu.

Diskurtsoa Ezein adierazpen egiten denean, diskurtsoa ematen da.

Esaldiak Diskurtsoa esaldiek osatzen dute eta esaldia, aldi berean, **nork/zer/nori** egiturak osatzen du.

Egitura Diskurtsoa da ideia **hiru aldiz adieraztea**.

- Sarrera** Esango dena aurreratu.
- Garapena** Esan azalpenekin.
- Ondorioa** Esan dena gogorarazi.

Gidoia Esango dena prestatzeko **metodo** hau jarraitzen da.

- Helburua** Nora iritsi nahi den hasieratik jakin eta argi izan (bertsolariek normalean hala egiten dute: lehenik, bertsoaren azken esaldia pentsatu).
- Ideiak** Idea mordo bat erauntsi.
- Aukera** Ideietatik batzuk hartu eta antolatu.
- Sakondu** Ideia bakoitza aztertu eta oinarriak jarri.
- Sarrera** Ideiak gizartean duen garrantzia azpimarratu
- Ondorioa** Adierazi nahi den iritzia argi utzi
- Titulua** Hainbat titulu pentsatu, gero bat aukeratzeko.



Modua Adierazteko modua erabaki behar da.

Irakurri Diskurtsoa idatzi eta irakurri, baina komunikatuz.

Eskema Diskurtsoa esan egiten da, baina idatziz daude ideia nagusienak.

Inprobisazioa Diskurtsoa momentuan osatzen da.

Entsegua Diskurtsoa aurrez prestatzen denean, probak egin behar dira.

Hitzak Ondo aukeratu.

Esaldiak Aldaketak eta erritmoa markatu.

Ispilua Begirada eta keinuak zaindu.

Grabatu Behin eta berriz entzunez hobetzeko.

Jendaurrean Entzulea ez da arerioa ez eta otsoa.

Ez adierazi Hizlariaren gaitasuna eta prestakuntzari buruzko barkamenik.

Adierazi Ustez gutxien dakienari eta urrutien dagoenari hitz eginez.

Mahai-ingurua edo hizketaldia Zentzuzko **erregelak** errespetatu behar dira.

Portaera Errespetua eta tolerantzia guztiaren gainetik.

Estrategia Beti pazientzia izan, eta ez hartu itxi-itxian jarrera erasokorrik edo defentsiborik.

Parte hartzea Entzuten jakin eta, hitz egin aurretik eta bitartean, isiluneak baliatu, gero ideia argi eta zuzen emanez.

Zirriborroa Besteen ideiak paperean apuntatu eta eskemak egin.

Elkarrizketa Ideiak trukatzeko, hizketa bidez, elkarren arteko jarduera da eta, ondorioz, parte hartzaileek beren borondatez onartu behar dute jardun irekia.

Irizpideak Egian, arrazoi funtsatuan eta zientzian oinarritutako hizketaldietan bakarrik parte hartu.

Iritzia Behin-behinekotasun kutsu edo azaleko zalantza batekin adierazi beti iritzia, egia oso-oso "jainkoak" bakarrik baitu.

Bilerak Lanerako egiten badira, errespetatu erregelak.

Garaiz ibiltzea Biler hasteko eta bukatzeko orduak bete.

Eguneko ordena Aurrez jakin behar da zertarako den bilera eta, kasuan, erabakiak hartzeko dokumentazioa edo azalpenak ere lehenago eman.

Kontrola Bileran norbait **jarburu** (mahaiburu, presidente) da parte hartzeak neurtzeko, eta beste norbait **idazkaria** da hartzen diren erabakiak jasotzeko.

Taldeak ez egin Lan-bilera bada, kide bakoitzak bere iritzia eman eta izan behar du (norberaren izenean aritzea), eta iritzi-blokeak ez dira sortu behar.

Erabakiak Hartutako erabakiak praktikara eman behar direnez, lana bere gain nork hartzen duen ere erabaki eta argi utzi behar da.

Agertokia Lekua ere ezagutu behar da etxean bezain gustura egoteko.

Egitura Lokalak (bereziki komunak) non dauden eta parte hartzeko tokia (mahaia, eserlekua, ikuspegia, argia, airea) egokia den.

Tresnak Erabiltzen edo erabiliko diren tresnak (mikrofonoa, proiektorea, pantaila) aurrez probatu behar dira.